


Zein animalia da benetakoa?



RICARDO KOHN



Ezkerrean, Gideon Mantellek egindako iguanodonaren lehen marrazkia. Eskuinean, ornitorrinkoaren eskeletoa. Lehena egiazkotzat jo zen 50 bat urtez; aldiz, adituek luzaroan esan zuten ez zela posible ornitorrinkoa benetako animalia izatea.

CUCKFIELD (INGALATERRA), 1822. Mary Ann Mantellek hagin handi fosildu bat aurkitu zuen Tilgateko basoan. Aurkikuntzaren berri senarrari eman zionean, hark, Gideon Mantell (1790-1852) geologoak, eremua miatu zuen beste arrasto batzuk aurkitu arte, eta horiek aztertzeari ekin zion. Ikerlana 1925ean eman zuen argitara. Basoan aurkitutako arrastoak muturrean adar bat zeukan hamabi metroko iguana erraldoiari zegozkion, Mantellen esanetan. Samuel Stutchbury Zirujauen Errege Elkarteko naturalistak esan zion haginak iguanarena zirudiela, askoz handiagoa izan arren, eta horregatik ondorioztatu zuen geologoak animalia hark iguana erraldoiaren itxura izango zuela. Eta horregatik jarri zion *iguanodon* izena; “iguanaren hagina” esan nahi du..

Mende erdiz ez zuen inork zalantzan jarri Mantellen iguana erraldoi adarbakarra. Baina 1878an, Belgikan, Bernissarteko meatzean, Louis Dollok espezie bereko 38 aleren arrastoak aurkitu eta aztertu zituen. Iguanodonak Behe Kretazikoan bizi izan ziren Europan, Mantellek esan bezala lauoinduak izan arren, oinbikoen jarrera hartzeko gaitasuna zuten eta muturrean ez zuten adarrik; Mantellek adartzat jo zuena dinosauroaren ezproi itxurako erpurua zen. Belgikako aurkikuntzen

ondorioz, ezproia zegokion tokian jarri zioten animalia desagertuari, baina iguanodon izena atxiki zuen. Mantelli zuhurtziarik eza eta zientzia egin nahian Mr. Potatoan jolastu izana egotz dakioke, baina iguanadona historian izendatutako bigarren dinosauroa baino ez zen, eta garai hartan paleontologian ez zegoen aurkikuntzak alderatzeko tipologiarik. Gainera, gehiegizko zuhurtasuna ere ez zen beti onuragarri.

Urte batzuk lehenago, 1799an, George Kearsley Shaw (1751-1813) botanikari eta zoologoa Britainiar Museoko historia naturaleko saileko kontserbatzailea zen. Hegoaldeko Gales Berriko gobernadoreak animalia espezimena arraroa bidali zion Australiatik: sator handi modukoa zen, baina kastoreen isatsa zuen, eta ahteen mokoa. Shawek faltsifikazioa zela ondorioztatu zuen eta haren inguruko adituak bat etorri ziren. Garai-ko prentsak “txinatarren ohiko munstrokeria eta iruzurtzat” jo zuen ustezko animalia. Baina hurrengo urteetan ale gehiago iritsi ziren Europara eta, azkenik, 1884an, William Caldwell enbrolago eskoziarrak animalia horietako bat arrautza erruten ikusi zuen Queenslanden; iguanodona zuten birmuntatu eta urte batzuetara, zientzialarien komunitateak ornitorrinkoa existitzen zela onartu behar izan zuen. ■

Futbol 7

Euskal Presoen Aldeko Txapelketa
XII. edizioa: Hendaian, maiatzaren 30a

